

Il était une fois l'Internet etik, Behin Bazen Internet-era.

Pentsaketak haur eta gazte antzerkiari buruz.

Maryse Urruty
KIMU 2016-2017

Sarrera

Duela urte bat, KIMU programan sartzeko esperantzarekin gutun liriko bat igorri nuen eta orain, bilana egiteko tenorea da. Txosten hortan, nere aurtengo ikasle, ikusle eta sortzaile bizipenak aipatuko ditut. KIMU-ri esker, ikusgarri ainitz ikusi ditut, artistiko ikastaroetan parte hartu dut eta denbora pixka bat ukan dut nere sorkuntzako lana galdekatzeko.

Txosten hori hastearekin, haur eta gazteen antzerkiko sorkuntza euskaraz nola aipatu galdetu dakot nere buruari. Pentsatu dut interesgarria izaiten ahal zela ene konpaniaren lana aipatzea. Joan den sasoiaren hasi gira *Behin Bazen Internet* sortzen, ikusgarri bat, euskaraz denentzat, zazpi urtetik goiti. Sorkuntza honen akuilatzaile bat, KIMU izan da eta txosten hortan, sorkuntzaren lehen oinarriak erakutsi nahi nituzke. Horri esker, erakutsi euskal sorkuntza bat nola izaiten ahal den.

Lehenik, « *Il était une fois l'Internet* » en sorkuntza aipatuko dut, *Behin Bazen Interneten* frantseseko bertsioa, ene haur eta gazte publikoari, hezkuntza numerikoari eta sorkuntzari buruzko pentsaketak aurkezteko. Gero, bereziki *Behin Bazen Interneten* berezitasunak aipatuko ditut. Azkenik, ekoizpen eta hedapeneko baldintzak konparatuko ditut bi ikusgarrien artean.

I Il était une fois l'Internet

Il était une fois l'Internet ikusgarriak antzerkia eta mediazio zientifikoa nahasten ditu. Proiektuarendako, Elodie Darquié-rekin elkartu gira. Elodie-k, numeriko ikerketeen zentro INRIArekin, lan egin du. Hezkuntza numerikoari buruzko ipuin batean elkarrekin lan egin nahi ginuen eta hortako 13R3P konpania sortu dugu.

A Ipuina eta hezkuntza numerikoa

Internet denetan da baina nehorik kasik ez daki nola funtzionatzen den. Ideia hortatik abiatuz, hasi gira *Il était une fois l'Internet* zirrimarratzen. Hastapenean, numerikoaren erabiltzeak eta arriskuak sareari konektatzean aipatu nahi genituen. Baina fite ohartu gira erreski erortzen ahalko ginela moralizatzaile istorio batean. Mezu politikoak badituzte beti antzerki obrek eta ez ginuen moralezko leziorik eman nahi. Teknika esplikatzea neutroagoa zen eta askatasun gehiago uzten zaukun doinuarentzat. « Nola funtzionatzen da ? », interesgarriago iduritzen zaukun « Nola untsa erabiltzen da ? » baino.

Hezkuntza numerikoko proiektuek, haurrei nola egiten den erakusten diote. Haurrek ikasten dute kodatzen, 3 dimensioetan inprimitzen edo animazioko filmak egiten. Gure aldetik, hautatu dugu ipuin bat kondatzea antzerkiarekin. Ipuin bat, Elodie-k forma hori maite baitzuen eta antzerkia nire arloa baitzen.

Ipuina betidanik herri hezkuntza tresna izan da, manera bat beldurtzeko, kasu eginarazteko, ikasteko, jakin-mina pizteko, ooren buru, mundua kontatzeko. Gaurengoko munduaren parte bat kontatu nahi ukan dugu tresna horrekin. Numerikoa aipatu nahi ukan dugu funtsian baina ez forman: taularen gainean, kontalari bat, publikoaren aintzinean, leku irudikapen minimo batekin, efektu berezi eta tauleta interaktiborik gabe.

Doinuaren libertatea atxeman dugu teknika aipatuz, ipuinak beste libertate bat eman dauku forman. Irudizko mundu bat sortu ahal ukan dugu istoria « Behin bazen »ekin hasiz.

1. Interneten mundua

Elodie-k ikerlan handia egin du ulertzeko nola funtzionatzen den Internet teknikoki. Gainera, bere ikertzeko moldea bitxia zen teknikalariarentzat. Aintzin gibelka joaiten zen. Internet denetan bada, nun ikusten ahal ote dugu ? Interneten kutxekilan. Zuntz optiko kableak berriz igan ditugu internet kutxetatik abiatuz eta ez da hain errexa izan, baina Elodie-k arrapostuak ukan ditu.

Ulertu duelarik, Elodie-k esplikatu daut nola martxatzen zen eta hasi gira gure irudizko munduaren inguruak margotzen. Horren egiteko, irudi argienak eta teknikoki zuzenenak bilatu ditugu. Tekniko parte bakotxa gune bat bilakatu da, eta gure munduaren mapa sortu dugu.

Informatiko zerbitzaileak liburuak kopiatzen dituzten liburutegiak bilakatu dira. Bideratzaileak, beren bide seinaleak egokitzen duten biribilguneak bilakatu dira. Internet kutxa, herri bat nun denbora guzian, paketeak eramaten diren, bilakatu da. Gune bakotxa irudi bideo-proiektatu bat da nun erregulariki itzultzen giren ikusgarriaren zehar. Beren kolorezko kodigoeri esker, lekuak aise ezagutzen ditugu eta deskribapenak ahinagoak dira. Marrazkiak sinpleak dira eta elementu tekniko konkretuak emaiten dituzte. Bideratzaileetan, telefono eta taula bat atxemaiten ditugu, zerbitzaileetan, leihatilak eta paketeak.

Lekueekin batean, pertsonaiak sortu ditugu mundu hori biziarazteko. « *Il était une fois la vie* » bizidun marrazkiaz inspiratu gira. Haur denboran zientifiko programa hori ainitz begiratu dugu. Barnean, globulu gorriak oxigenoko burbuilak bizkarrean karreatzen zituzten. Globulu xuriak eritasunak gelditzen zituzten beren espazio ontzitik. Eta luzaz, gure gorputza irudikatu dugu, irudi horiei esker. Elementu teknikoak pertsonifikatzeak gauzen funtzionamendua aiseago ulertarazten du. Ikusle eta pertsonaien artean emozio atxikimendua gehitzen badugu, gauzak ono errexkiago ulertzen ahalko dira.

Gure proiektuan, antzezle bakar batekin taularen gainean ari gira, ni, eta orduan, pertsonaiak biziki desberdinak izan behar dira, ikusleek argiki jakin dezaten norekin eta nun diren.

Pertsonaiak sortzeko, bozarekin lan egin dut bereziki. Pertsonaiaren boza senditzen dut eta gero bere gorputza eraikitzen. Xerkatu ditut bozak eta atxeman dut maite nituela zaharren bozak, azentuak, mintzo bitxiak. Kantari naizelako, pertsonai batek kantatu behar

zuen. Gero lan handia egin dut, pertsonai batetik besterat pasatzeko aise eta fite, elkarrizketak biziarazteko pertsonaien artean. Pertsonaiak ukan eta, rol bat eman diet bakotxari istorioan.

2. Interneten istorioa

Gure istorioa sortzeko, emozioak eta teknika nahasi ditugu. Hala, ikusleek gauzak ikasten dituzte kasik konturatu gabe. Errealitate teknikoa biziki konplexua izanik, elementu batzuk hautatu ditugu eta gure istorioaren zentroan ezarri ditugu. Ikusgarria ikustean, ikusleek ez dute den dena ulertuko interneten funtzionamenduari buruz bainan printzipio handienak ulertzeko xantzarekin ateratuko dira.

Elementu pedagogikoak

Ez ditut hemen elementu pedagogikoak esplikatu bainan larri-larria zerrendatu ditut.

Bideratze dinamikoa : ez da interneteko maparik, sarea denbora guzian gaurkotzen da, hortako bideratzaileek ez dituzte informazio guziak bide berdinetik pasarazten.

Kode bitarra : informatikan, informazio guziak 0 eta 1 ekin kodatuak dira.

Internet kutxaren funtzionamendua.

Desberdintasuna Internet eta ordenagailuaren artean.

Gizakien lekua : internet eta numerikoa gizakiek eta gizakientzat eta egina da, ez da batere magikoa.

Istorioren elementuak :

Konta-hari ainitz entseatu ditugu eta ororen buru, inimizio ibilbidea hautatu dugu. Pertsonai nagusiak, asmakari bati buru egiten dio eta aterabidea atxeman nahi du. Horren egiteko, bidaia hasten du eta gertakari batzuen ondotik misterioa konponduko du. Gure istorioan, inimizio-bidaia informazioaren bidaia internet sarean izanen da. Ipuinaren eskema sinplea da. Hastapeneko egoera bat bada, elementu nahasle bat jiten da gauzak aldatzeko eta gertakari batzuen ondotik, bururapen zoriontsu bat atxemaiten da. Gure kasuan :

Hastapeneko egoera

Data pakete eramaile bat da, 13r3p Internet kutxan bizi da. Korrika egitea maite du, wifi-surferak harroegi atxemaiten ditu, eta mendi bilotsuen beldur da. Goizero, switcha, bere herriko plazara joaiten da paketeak bereskuratzeko eta internetera eramaiteko, jende guziena arabera. Digit, bere lagun hoberenarekin bidaiatzen da. Bakotxak pakete bat hartzen du, Amatzki Modemi erakusten diote, entzuten diote Rack bere semetxia aipatzen eta argiaren abiadura zuntz optiko kableetan abiatzen dira. Bideratzaileetan gelditzen dira, ibilbide laburrenak hartzeko eta zerbitzaileetara heltzen dira. Paketeak pausatzen dituzte eta beste sentura joaiten dira Internet kutxaren gana.

Elementu nahaslea

Digit wifi-surferak bilakatzen da azterketa pasatzean. Data abandonatua senditzen da eta ez du gehiago Digitena laguna izan nahi. Kexaturik, Data joaiten da bere paketeak eramaiteko eta hor, elektrizitate mozturak geldiarazten du. Errabiaz, Datak bere paketea botatzen du, idekitzen da eta xingolak aurkitzen ditu, 0 eta 1ekin. Ez zuen sekulan pentsatu paketeak idekitzen ahal zirela eta orain jakin nahi du zer duten barnean.

Lehen gertakaria

Urrunean, Datak botz bat entzuten du, Luigirena, mustatxa bideratzailetik. Hara joaiten da eta Datak, sobera kuriosa zen pakete eramailearen ixtorioa entzuten du. Beldurtzen da. Duela aspaldi, neska hori desagertua zen pakete baten idekitzearen ondotik.

Bigarren gertakaria

Data zerbitzaile batera joaiten da argibideak ukaiteko 0 eta 1i buruz. Ez da posible, orduan, bere beldurra iraganik, Datak pakete berri bat idekitzen du. Barnean, berriz atxemaiten ditu 0 eta 1ak xingolaren gainean.

Hirugarren gertakaria

Data 13r3p kutxara berriz joaiten da, eta Amatzki Modemek ulertzen du Datak bere paketea ideki duela. Amatzik kontatzen dio sobera kuriosa zen pakete eramailea bera dela, 0 eta 1ak kodigo sekretuak direla, bere bizia xahutu duela sekretu horrengatik, eta erbestera igorria izan dela. Bukaeran, Amatzik Data zigortzen du hamar egunez ez berriz hasteko.

Laugarren gertakaria

Gaztiguak Dataren determinazioa gogortu du. Datak Rack Amate Modemen semetxia ezagutu zuen lehenengo bidai batean. Joaiten da haren gana galderak pausatzeko. Rackek ere jakin nahi du, xerkatzen du bere aldetik eta erraiten dio Datari paketeak ez direla sortuak zerbitzaileetan bainan bakarrik kopiatuak.

Bosgarren gertakaria

Datak ordenagailura joan nahi du jakiteko nork igortzen dituen mezu sekretu horiek. Digitekin bakea egiten du eta Digitek erakusten dio nola egin ordenagailuan sartzeko. Ordenagailuaren barnean, Datak RJ45 ezagutzen du eta berak esplikatzen dio nola denek lan egiten duten mendi bilotsuentzat.

Bururapena

Datak ulertzen du mendi bilotsuak ez direla hain beldurgarriak, Data baino emekiago joaiten direla eta biziki handiagoak direla. Datak, bere biziari sentsua eman dio, bidaiatzen du informazioak pasarazteko mendi bilotsueri, bere lagun hoberenarekin bakea egin du eta Rackekin maitemintzen da.

Gure istorioan, pedagogia nahasten dugu emozioz beteta ipuin batekin. Ezezagunaren beldurra, traizioa, bere mugak gainditzea aipatzen ditugu pertsonaieri eta umoreari esker. Horrekilan, elementu teknikoak transmititzen ditugu kasik indarrik gabe ikusleeri.

B Haur antzerkia edo denen antzerkia ?

Haurrei mintzatzean, arrisku handiena ikuslea haurtzea da. Istorio sobera sinplea sortzean, edo segur izaitzeko ulertzen duela istorioen gertakariak sobera esplikatzean. Holako ikusgarriak ikusi ditut. Arazo nagusia da ikusgarri horiek ez direla mintzo haurrei baizik. Neretzat, haur antzerkiaren kategoria problema bat da.

« *Il était une fois l'Internet* » sortzeko, marrazki bizidun ainitz begiratu ditugu, istorioak ikertzeko eta plazer handia hartu dugu. Gehienik maite ukan ditugun filmak, irakurtzeko maila bat baino gehiago badituzte eta izigarri untsa eraikiak dira. Heldueri begi keinuak egiten dituzte eta edozein adinetakoak pertsonaiekin identifikatzen ahal dira.

Entseatu gira horren ezartzea gure ikusgarrian, istorio bikain bat eraikitzea denentzat, emozio ainitzetik pasatzeko edozoin adinetan. Geek kulturaren inguruan erreferentziak eta arraileriak ezarri ditugu, Entseatu gira ikusgarri bat sortzea gure gustuan eta begiratzea gure barneko haur begieekin.

Erabakitzen badugu haur publikoaren ikusgarri baten ez egitea, erran behar da denentzat adin batetik goiti dela. Lehen ikusgarriarentzat, zaila zen hautatzea zer adinetatik goiti. Lehen mailako eta kolegioko klaseak gomitatu ditugu gure azken egonaldiaren denboran eta galdezkatu ditugu. Horri esker, ikusi dugu Ce2 aintzin, haurrek ikusgarria maite zutela baina ez zutela loturik egiten Internetekin. Irudizko mundua eta istorioa maite zituzten bakarrik. Hortako erran dugu gure ikusgarria zazpi urtetik goitikoentzat zela. Kolegioentzat, beste zailtasuna izan da, ikusten zuten lehen mailako ikasleak ere jiten ahal zirela eta orduan ez zuten erran nahi maite ukan zutela. Kolegioko ikusleak publiko biziki zaila da eta batzutan bortitza. Ene ustez, obrak bereziki beren adinetatik goiti pentsatu behar dira eta konpaniaren proiektu berria haientzat izanen da. Orduan, eskoleekin ikusgarria ikustera jiteko, erran dugu CE2 eta 6garrena artean dela. Eskolako emanaldiak, emanaldien gehienak dira eta hortako klaseak zehaztu ditugu. Plazer ainitz hartu dugu ere publiko familiar baten aintzinean, haur gazte eta adineko jendeekin. Ene ustez, obra hori zinez denen antzerkia da.

C Mediazioa : ikusgarriaren bazterrak

Gure proiektua hezkuntza numerikoari buruz izanik, mediazioa, gure lanaren parte handi bat izan da. Elodie-k idatzi du txosten pedagogiko bat « le guide du routeur » heldu eta erakasleentzat errealitate teknikoaren erakusteko ikusgarriaren irudien gibelean. Joko bat sortu dugu ere, ikusleek istorioan parte har dezaten. Jokoa sinplea da, bideratze dinamikoaren printzipioak berriz hartzen ditu, jokalariak informazioaren bidaia biziarazteko eta kode bitarrez mezu ttipi bat itzularazteko.

Emanaldien ondotik, elkarrizketak antolatzen ditugu, ikusleek galdegin dezaten nahi dutena. Elkarrizketa horiek biziki aberatsgarriak dira guretzat, ikusleek pentsaketa kolektibo bat hasten dute eta usu beren artean arrapostuak atxemaiten dituzte. Interneten bezala, aterabideak sarean atxemaiten dira.

« *Il était une fois l'Internet* » en sorkuntzarekin, galdera ainitz ukan ditugu haur, gazte eta denen antzerkia, mediazioa, taula zuzendaritza eta narrazioari buruz. Xantza

handi batekin, ikusleek eta profesionalek begitarte on bat egin diote obrari eta oraino itzulian gira ikusgarri horrekin.

II Behin bazen Internet

« *Izpiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen* » Hecho en Casa konpaniaren proiektu berrian izaitea, KIMU programan izaitea eta ene Euskal Herrira itzultzeak lagundu naute *Behin Bazen Internet*-i pentsatzea : *Il était une fois l'Internet* euskaraz.

A Itzulpenaren lana

Bertsio berria sortzeko, behar ginuen testua euskaraz itzuli. Denbora pixka bat lehenago, aurkeztu ginuen parte bat ingelesez, nihaurek itzuli nuen eta ez nuen arazo handirik ukan. Bainan euskaraz itzultzeko, banakien ez nintzela gai eta orduan itzultzaile profesional bati galdegin dakogu. Ohartu naiz lotura biziki intimoa banuela hizkuntzarekin eta bertsio hortan nahi ginuen euskarari balioa eman .

« *Izpiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen* » lantzean, itzulpena biziki maitatu nuen, itzultzaileak euskalki desberdinak erabili zituen pertsonaien arabera. Cyrano iparraldekoa zen, Christian, Roxane eta De Guiche, hegoaldekoak ziren. Ideia ederra zela atxeman dut eta ber itzultzaileari galdegin diot gurekin lan egitea, Txomin Urriza Luro.

Itzulpenaren ideia nagusia euskalki eta mintzatzeko manera desberdinak entzunaraztea izan da. Gure irudizko mundua sortzeko, errealitate teknika errespetatu dugu. Hemen, hizkuntzak ixtoria zerbitzatzen du eta ber denboran bere aberastasuna entzunarazten dugu. Adibidez, Rack eta Amatxi Modem ber familiakoak izanik, xukaz ari dira, Aitatxi Modem, Data eta Digit toka nokaz ari dira.

Euskalkiak hautatzeko, nahi nuen iparraldeko euskalkia entzunarazi, aisetasunez beharbada, hobeki menperatzen dutan euskalkia baita. Pertsonai batzuk batuaz mintzaten dira, edo hegoaldeko azentu batekin bainan bigarren mailako pertsonaiak dira. Hautu hori, traba bat izaiten ahal da ikusgarria hegoaldera hedatzeko, bainan plazer ainitz hartzen dut obra euskalki hortan emaitan, eta hori da inportanteena.

B Taula Zuzendaritza

Rol ainitz ditut ikusgarri huntan, taula zuzendaria eta antzerkilaria naiz. Libertate ainitz badut hautuak egiteko. *Il était une fois l'Internet*-en, kontalaria, alexandrinoz mintzatzen da. Txominek proposatu daut parte horiek bertsuz egitea, kantu gehiago ezartzeko ere. Begi keinu bat gehitzen du euskal kulturari eta momentu horiek denbora pixka bat emaiten diete ikusleeri arnasa berriz hartzeko.

Pertsonaiak berriz sortzeko, denbora eta energia irabazteko, pentsatu dut errexago litekela frantseseko pertsonaiak kopiatzea. Sorkuntza ez da oraino bukatua, baina nik uste ez da posible izanen. Nere jokamoldean, boza elementu inportanteena da, boza atxemaitean pertsonaiari bizia emaiten ahal diot. boza eta hizkuntza lotuak dira, ez dut zuzen ber boza frantsesez edo euskaraz mintzatzen dutalarik. Pertsonaien gorputzak ere atxemaiten ditut bozen arabera eta orain, laneko hastapenean, ikusten dut jadanik bi bertsioen pertsonaiak desberdintzen dituztala.

Lan hortan, Elodie-k ez baitu euskara ulertzen, ez dut bere begiradarekin egiten ahal. Ene sensazioekin egin behar dut eta beste begiradak atxeman beharko ditut. *Behin Bazen Internetentzat, Il était une fois l'Internet* soinuak eta leku-irudikapenak erabiltzen ditugu. Bideo batzuetan, frantseseko hitzak euskaraz itzuli ditugu. Denbora batez, ideia zen beste begi keinuak gehitzea baina aski fite folkloren beldurra ukan dugu eta azkenean ez ditugu lauburu edo pilota plazarik ezarri bideratzaileetan. Muga sotila da karikatura eta omenaldiaren artean.

Nola kalifikatu *Behin Bazen Internet* eta *Il était une fois l'Internet* elgar arteko lotura ? Adaptazio bat ? Bertsio berri bat ? Sorkuntza bat ?

Gehienetan sorkuntza berria aipatzen dut, kasu hortan testua ez baita bakarrik itzulia izan baina beste pertsonai bat bilakatu da. Frantseseko ikusgarrian hizkuntza ez da hainbeste inportantea. Baina euskaraz, hizkuntzari zinez kasu eman behar ginuen. Hautu pertsonal bat da, beste sortzaile batek ez lituzke ukan ber galderak. Lotura biziki intimoa dut hizkuntza horrekin. Hizkuntza galdu badut ere, ene ama hizkuntza da. Luzaz, ahalketua izan naiz ez bainuen untsa mintzaten eta oraino beldur ainitz sortzen daut publiko baten aintzinean euskaraz mintzatzeak eta idazteak. *Behin Bazen Internetekin* nahi nuke euskarari balioa eman eta espero dut helburua kausituko dugula !

C Euskarazko mediazioa

Il était une fois l'Internet-entzat mediazioa biziki inportantea izan baldinbada, *Behin Bazen Internet* entzat ono gehiago.

Emanaldi gehienak ikasleen aintzinean izanen dira. Euskal antzerkian, ikasleen hizkuntza maila jakin behar da aintzinetik. Ikastoleekin, ez da problemarik bainan ikasbi klaseetan, maila apalago badute gehienetan. Ikasbi klaseetan, bederatzi urtetik goitiko hurrei proposatzen diegu ikusgarria, mediazio berezi batekin. Hiztegia eta istoria amiñat aipatuko ditut ulermena errazteko.

Hizkuntza mailaren gaia berezia da euskal antzerkian, ez dugu sekulan galdera hori ukan frantseseko ikusgarriarekin.

Memento honetan, ez dut oraino lan egin mediazio horri buruz bainan heldu diren hilabeteetan lan hortan murgilduko naiz.

III Ekoizpena eta hedapena

Ekoizpena eta hedapenaren gaiak funtsezko gaiak dira sorkuntza batentzat. Hemengo etsenpluan, ikusgarria frantsesez sortua izan da eta gero euskaratua izan da, Hecho en casa konpaniaren Cyrano bezala.

A Ekoizpeneko baldintzak

Il était une fois l'Internet en sorkuntza, hamar astez egina izan da, leku desberdinetan eta biziki auto-finantzatua izan da. Artistak ez dira kasik pagatuak izan sorkuntza denboran, usu bezala konpania ttipien lehen proiektuetan. Finantza mailako arrisku handi bat hartu dugu pentsatuz inbestimenduen ekarri bat ukanen ginuela eta mementoko hortan gira. Proiektu hori muntatu dugu gure aldetik pentsatuz aski ona bazen, gero salduko ginuela. Free Fondazioa, « la Cité des Sciences » eta Nanterreko agoraren sostengoa ttipi batzuk ukan ditugu, eta ez dira kulturako lekuak. Laguntza hori ukan dugu proiektu horrek numerikoa aipatzen baitu. Haurtasuna, numerikoa eta antzerkia hiru mundu horien artean izaita proiektuaren indar nagusia da,

Euskal bertsioarentzat, ibilaldia desberdina izan da. Partaide ainitz galdegin ditugu eta laguntza ainitz lortu dugu. Iparraldeko kultur egiturek harrera ona eman daukute eta gure egonaldiko denboran, pagatuak izanen gira edo bederen gastuak ordainduak izanen dira. Baxe nafarroko herri antzokiarekin lehen egonaldia egin dugu maiatzean eta beste biga eginen ditugu EKE eta Hameka-ri esker.

Sorkuntza berriaren egiteko, bost aste ukanen ditugu baldintza biziki onetan. Erakusten dauku, euskal sorkuntzarentzat galde ainitz badela eta loturik laguntza ainitz. Egiturek euskal ikusgarriak atxeman behar dituzte eskoleentzat eta ez da hain errexa.

B Hedapena

Euskarazko ekoizpena frantsesa baino errexago atxeman dugu baina hedapenarentzat alderantziz izanen da, eremuak hedapena mugatzen baitu bortxaz. Programatzaile guti da eta emanaldi andana bat erosten badauzkigute ere, iparraldean ikusgarriaren hedapena mugatua da.

13 emanaldi saldu ditugu mementoko Baxe nafarroko herri antzokia eta euskal hirigune elkargoa hego lapurdiko lurralde eremuari esker. Euskal hirigune elkargoaren sormenarekin galdera ainitz badira kulturari buruz eta heldu diren hilabeteetan egoera argiagoa irakurtzen ahalko dugu.

Eta Hegoaldera ? Nahi ginuke hegoaldera joan ikusgarriarekin baina senditzen dut ikusgarri hori gehiago egin dela iparraldeko publiko batentzat, euskalkiengatik sustut. Beharbada obra exotiko bat bezala programatua izan liteke iparraldeko euskalkia entzunarazteko baina hiztegia arretu bat izaiten ahal da hedapenarentzat ere.

Hirugarren bertsio bat egiten ahal ginuke, batuaz beharbada, baina ez dakit emeia ukanen dutanez lan horrentzat eta ez naiz segur funtzionatuko dela. Kasu hoberenean, entsegu emanaldiak egiten ahalko genituzke ikusteko nola ihardesten duen hegoaldeko publikoak.

IV KIMU bizipenak

A Ikastaroak

1. Klun ikastaroa Hervé Langlois-ekin Montreuilen. Otsailaren 13tik, 17ra.

« Zure klun bizi eta ez edozein klun bat. Zure galderak identifikatu eta jokatu haiekin.

Zorroztasun goxo batekin, bilatuko dugu lasaitasun berezia, beharrezkoa, klun sentikorra atxemaiteko, bere burua harritzen duen kluna, klun idazlea.

Beregaitasuna atxemaitea, joko eta idazmenaren intuizioak hedatuz. Bakotxak errezibituko eta hautatuko du bere kluna (antzerkikoa, zirkokoa, burleskoa, mutua). Ez dugu ikasle lanik aipatuko bainan zinez sorkuntza. »

2. Boza ikastaroa Roy Hart Theatre ekin, Malerargues-en.Uztailaren 24atik, 30ara.

« Giza-bozaren ingurumeneko gaiak - kantatzea, mintzatzea, bat batean asmatzea – ikertuak eta barnatuak izango dira. Axola handiena ezarriko da, bakarkako lanean, eta boza eta mugimenduaren arteko harremanari. Gorputza tresna dinamiko bat bilakatzen da, soinu eta mugimenduko iturria. »

3. Antzerki ikastaroa Alexandre Del Perugiarekin Pontempeyrat-n. Uztailaren 31era, Agorrilaren 5ara.

« Aurkitu presentzia zure gorputzaren lasaitzean eta ikasi nola indartsua izan. »

B Festibalak

Sur un petit nuage Pessac, Abenduaren 19tik, 20ara

Mon prof est un troll, O'so kolektiboa

Pica Pica, Eleonora Ribis

Detours, Eclats konpania

Cargo, AAO kolektiboa

Karpatxo, Izpuran, Apirilaren 14atik, 15ara

Conversation avec un arbre, Rouge Eléa konpania

Tango, Jour de Fête konpania

L'autre Rue, la Fabrique Affamée konpania

Jokoz Kanpo, Ezpeletan, Ekainaren 3a

Ilargi arrantza, Banakike konpania

Passe par la fenêtre et cours, Happy Face konpania

Walls, U2T konpania

Les Mythos, Triple 6 konpania

0101 Elirale konpania

William Pig, le cochon qui avait lu Shakespeare, Le théâtre des deux mains konpania

Les Jours Heureux, Angelun, Ekainaren 4a

L'arche part à 8 heures, la Fabrique Théâtre konpania

Piccoli sentimenti, Tof théâtre konpania

Le très grand conseil mondial des clowns, Niorten, Ekainaren 23tik-25ara

La Cuisine, Maboul Distorsion konpania

Rien à dire, Léandre

Georges, Ouf c'est oups konpania

Ah ah ah, Okidok konpania

Plouf et replouf, Super-super konpania

No sé Léandre

Rira bien qui rira, tentative de conférence sur le rire Proserpine, l'apprentie konpania

Alegrativo, Ale risorio

Miligram raconte les mille et une nuits, La chaloupe konpania

Arsène Folazur, Arsène Folazur konpania

Avignoneko festibala, Uztailaren 19tik 24ara

Un démocrate, Idiomécanic Théâtre konpania

1336 Paroles de Fralib Comédie de Saint Etienne

Les déclinaisons de Navarre PJPP konpania

J'ai bien fait ? Le Préau CDN de Normandie

Un soir chez Boris, Olivier Debelhoir

Titre définitif – Titre provisoire Raoul Lambert konpania

Pilleta Remix Wow kolektiboa

Sandre Denisyak kolektiboa

Santa Estasi Atridi Otto Ritratti di Famiglia, Antonio Latella

La Fiesta, Israël Galvan

Bestie Di Scena, Emma Dante

Arteguna, Hazparnen, Agorrilaren 28a

Bidea Jour de fête konpania

Les gens sont bons en général Mecanica Théâtre konpania

La peur du gant de ménage et vice versa, Entre les gouttes konpania

En même temps, Les petits papiers konpania

Les voisins, Les traversées konpania

Ninika, Elirale Konpania

V Bururapena

Gaur, biziki argi da nere baitan, ene sorkuntzak denentzat egin nahi dituztala. Ainitz ikasi du jokatzuz belaunaldiak nahasten dituen publiko baten aintzinean. Nik uste, antzerkia leku politiko bat da nun gai sozialak aipatzen ahal ditugun. Internet eta numerikoa segurki, bainan gai guziak ere, ber hizkuntza eta mintzatzeko manera atxemanez.

KIMU-ri esker ikusgarri ainitz ikusi ditut, eta aintzinate naiz, bai ene praktikan eta bai ene pentsaketan. Erakasle izigarri onekin lan egin dut eta ene tresnak hobetu ditut antzerkilari eta taula zuzendari bezala.

Konpania desberdinak ezagutu ditut bai euskal herrikoak eta bai europa guzikoak. KIMU-k parada eman daut ene sorkuntzak beste manera batez ikusteko. Programa horri esker, ikusgarriak sortzeko nahia arraberritu dut.

13R3p konpaniarekin ari gira pentsatzen beste proiektu bati, numerikoari buruz, euskaratzen ahal ginuke proiektu hori ere. Sorkuntza hori egiten ahalko ginuke, hemen aipatu dugun modelo segitzean.

Bainan beste alde batetik, nahi nuke ikusi nola liteken euskal proiektu baten sortzea, erderazko bertsiorik gabe. Zein litezke sorkuntza horien berezitasunak ? Nola pentsatu ekoizpena eta hedapenaren modeloak ? Beste desafio bat izanen da segurki bainan urte hortan indar ainitz hartu dut ene ibilbidea segitzeko eta proiektu handinahiak muntatzeko !